



**LIBURUTEGI NAGUSIA
BIBLIOTECA GENERAL**

LIBURUTEGI NAGUSIA 2015EKO MEMORIA

2015

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS

01/ Instalazioen erabilpena

01.1. Erabiltzaile-kopurua

- Erabiltzaile potentzialak: 6973 (Bibliotekak sareari loturiko datuak)
- Erabiltzaile erregistratuak: 3536 (idem)
- Altak L.N.an: 49
- Bajak L.N.an: 2

01.2. Liburutegia irekitzea

- Liburutegia irekita egon den egun-kopurua: 221
- Zenbat ordu eskaini zaion erabiltzaileari: 1701

02/ Bilduma

- Bildumako unitate fisikoen kopurua guztira: 81250
- Irispide libreko unitate fisikoen kopurua: 5684
- Monografia-kopurua: 60828
- Argitalpen seriatuen kopurua: 3994
- Sareko datu-base irisgarrien kopurua: 11
- Aldizkari elektronikoen kopurua: 75

03/ Bildumaren hazkuntza

03.1. Eskuratzeak

- Monografiak: 2076 izenburu
- Seriatuak: Jasotako zenbakiak: 7032
- Bilduma erreserbatua: 33 izenburu
- Erreferentzia-lanak: 3 izenburu
- Bulegoetarako lanak: 34 izenburu

03.2. Azaleztatzea

- Aldizakariak: 94 liburuki
- Egunkariak: 24 liburuki
- Liburuak: 3 monografia

2015ean, argitalpen batzuk azaleztatzeke aurrekontu bat onartu zen: *El Mundo* –gure Liburutegiak kontserbatu behar ditu, Euskal Prentsa Digitalizatzeko Partzuergoaren akordioa dela bide–, eta beste 10 aldizkariaren tituluak. Guztira: 142 liburuki.

Azaleztapena Verjura y Corondel (Bilbo) enpresari esleitu zitzaion (7541,93 € fakturatu zituen).

04/ Dokumentuetarako irispidea

04.1. Liburutegiko katalogoko kontsultak

- Kontsultak, guztira: 44855
- OPAC aplikazioaren bidez egindako kontsulten kopurua: 40715
- Z3950 bidez egindako kontsulten kopurua: (ez dago aktibo)

04.2. Dialnet bidezko dokumentazio-eskabideak

2015ean, 1.600 eskabide jaso dira; hileko batazbestekoa: 133,33 eskabide. Aurreko ekitaldian baino %37,34 gehiago.

Erantzuten emandako batazbesteko denbora, erabiltzaileak eskatzen duenetik dokumentua bidaltzen denera artekoa: 2,15 egun. Baina 1154 eskabide (%72,13) 48 ordu baino gutxiagoan erantzun dira.

04.3. Maileguak

Liburutegi Nagusiak 1193 mailegu formalizatu ditu; eskabide gehienak EAEko Administrazio Publikoko langileenak izan dira.

- Barrukoak: 1168.
- Liburutegien artekoak: 25.

Hor ez dira sartzen maileguan eman ez direnak, dela kontsulta liburutegiko irakurketa-gelan bertan egin delako, dela argitalpen seriatuei buruzko eskabideak zirelako (horiek ezin dira liburutegitik atera).

04.4. Erreprodukzioa

Erreprodukzio-zerbitzuaren barruan sartzen da: materialak fotokopiatzea eta digitalizatzea, eta mikroformatetik fotokopiak edo PDFak lortzea. Digitalizatzeko aukeraren eskaintza aurtengo ekainean hasi zen.

Guztira, 9526 orri erreproduzitu dira, dokumentu-mota ezberdinenak: Artxibo Orokorra (alde batera utzita artxibotik bertatik eskatzen direnak), buletinak, egunkariak, liburuak, mikroformatuak, dokumentazio elektronikoa eta aldizkari zientifiko edo kulturalak.

Erabiltzeko erosotasuna dela-eta zerbitzu honek izan duen onarpenari esker, paper asko aurreztu da: 6594 orri, hau da, guztira erreproduzitu denaren %69,22.

05/ Ekipamendua eta instalazioak

05.1. Lokalak eta altzariak

2015ean, Liburutegi Nagusiak ez du lokal-kopurua handitu, eta dituen batzuk Artxibo Orokorrekin eta Argitalpenen Zerbitzu Zentralarekin partekatzen ditu. Hauexek dira:

- Irakurketa-gela: 330 m²
- Prozesu teknikoen gela: 144 m²
- Gordailuak: 780 m²
- Irakurketa-postuak: 18
- Apalategiak, metro linealetan: 6880

05.2. Azpiegitura teknologikoa

- OPACak: 4
- Laneko ordenagailuak: 7
- Irakurgailu-erreproduzitzailak eta mikroformatu-digitalizatzaileak: 1
- Fotokopiagailuak-digitalizatzaileak: 2
- Periferikoak: 5

06/ Langileak

Liburutegi Nagusiko langile gehienak plantillakoak dira, dedikazio osokoak. Postu batzuk argitalpenen atalarekin partekatzen dira. Bestalde, pertsona bat aritu da laguntza teknikoa ematen Bibliotekak sareko katalogoko autoritateak berrikusteko (Liburutegi Nagusia Bibliotekak sarearen barruan dago).

06.1. Langileak

- 1 Zerbitzuaren Arduradun
- 1 Liburutegiaren Arloko Arduradun
- 4 Liburutegiko goi-mailako teknikariak
- 2 Liburutegiko erdi-mailako teknikariak
- 2 Liburutegiko Administrazioariak
- 1 mendeko langilea

06.2. Prestakuntza

Bi teknikari bibliotekarik parte hartzen dute ELEBI programan (euskarazko prestakuntza). Dialneteko pantailak eta plataforma euskarara itzultzeaz arduratu dira (ataza hori urte honetan zehar egiten ari dira).

Bi teknikari bibliotekarik parte hartu dute *Dokumentu-kudeaketa Sistema Artxibo Digitalaren bidez* ikastaroan (IVAPek antolatu du ikastaroa).

06.3. Jardunaldi eta kongresu zientifiko eta kulturaletan parte hartzea

Teknikari bibliotekari batek jardunaldi honetan parte hartu zuen maiatzaren 28, 29 eta 30ean: IV Jornadas Españolas Fesabid (Gijón).

07/ Aurrekontuak

Atal honetan honako hauek jaso dira: material bibliografiko eta dokumentalak harpidetza eta erosketa-bidez lortzeak eragindako gastu korrontea; ekipamenduak eta material bibliografikoa mantentzea, eta materialak erreproduzitzea.

- Liburutegi Nagusia: 44150,09 €
- Bulego administratiboetarako: 3147,18 €
- Azaleztapenak: 7078,50 €
- Ekipoen mantentze-lanak: 1697,13 €
- Dokumentuen erreprodukzioa: 980,00 €

08/ Beste jarduera batzuk

08.1. Funts bibliografikoak txertatzea

Aurreko urteetan bezala, 2015ean ere maiz heldu zaizkigu –ia hilero– Kultura Saitetik (legezko gordailua), Justizia eta Herri Administrazio Saitetik eta Lehendakaritzatik.

Beste zuzendaritza eta sailetatik ere heldu dira, baina puntualki. Horietatik, gutxi batzuk txertatu dira, gehienak ale bikoiztuak baitziren, edo ez baitzuten interesik Liburutegirako.

2015eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, lankidetzan jardun gara Ondare eta Kontratazioaren Zuzendaritzarekin (bere bulegoak berregokitzen ari zen). Liburutegi Nagusiak aholkularitza-lanak egin ditu (zer funts bibliografiko garbitu beharko liratekeen; zer egin zuzendaritzak nahi ez dituen argitalpenekin eta zer material ezabatu beharko liratekeen zaharkituta geratu direlako edo alferrekoak direlako) eta bere funtsetan txertatu ditu monografia batzuk eta argitalpen seriatuen zenbaki batzuk.

08.2. Material bikoiztuen eskaintzak

Liburutegi Nagusiak beste zentro batzuei monografiak eta argitalpen seriatuen ale bikoiztuak eskaintzen dizkie aldian-aldian, eta, zenbaitetan, bere funtsak osatzeko batzuk eskatzen dizkie zentro horiei. 2015ean, honako hau izan da mugimendua:

- Eskaintako monografiak, guztira: 1238
- Eskatutako monografiak, guztira: 99

Liburutegiak hiru eskaintza egin zituen:

- Lehenengoan, 350 izenburu eskaini ziren, eta 186 bidali (%53,15).
- Bigarreanean, 433 izenburu, eta horietatik 131 bidali ziren (%30,24).
- Hirugarreanean, 455 izenburu, eta horietatik 173 bidali ziren (%38).

Gainerako lanak Jaurlaritzako langileen esku jarri ziren Liburutegi Nagusiaren atean, eta onarpen ona izan zuen ekimenak. Irtenbiderik ez zuten lanak suntsitu egin ziren.

Bere aldetik, Liburutegi Nagusiak 99 titulu eskatu zituen beste erakunde batzuek egindako eskaintzetatik.

08.3. Iragarki-ohola

Liburutegi Nagusiak intereseko informazioa ematen du Liburutegi Nagusiaren eta Argitalpenen Zerbitzu Zentralaren webaren bidez, baita iragarki-ohol birtualaren bidez ere, zeina administrazioko langileen posta elektronikoko karpeta publikoetan baitago.

Ikastaroak eta kongresuak

Liburutegi Nagusiak honako informazio hau ere publikatzen du, gehiena Arxiforum eta Iwetel banaketa-zerrendetatik hautatua): ikastaro espezializatuei buruzko ikastaroak, profesionalentzako jardunaldi eta kongresuak, lan-eskaintzak, Artxibistika- eta Dokumentazio-arlokoak. 2015ean, 81 mezu publikatu dira.

Jasotako liburuak

Hilero, Liburutegi Nagusiak eskuratutako azken materialaren berri ematen du, liburutegiko webaren bidez eta iragarki-oholaren bidez. 2015ean, nobedadeei buruzko 10 buletin egin dira, guztira, 1157 erreferentzia bibliografiko.

Prentsako berriak

2015ean zehar, 38 prentsa-dossier egin dira, guztira 377 berri, 14 egunkaritako edizio digitaletako kultura sekzioetatik hautatuak.

Berriak astean bitan publikatzen dira (astelehenean eta ostiralean), iragarki-oholean; asteko berrien multzoa, berri, goian aipaturiko orrietan.

08.4. Twitter

2011ko otsailean, Liburutegi Nagusiak Twitterreko profila sortu zuen. Geroztik, 6136 txio publikatu dira; horietatik 1467, 2015ean.

2015eko abenduaren 31n, kontuak 488 jarraitzaile zituen.

08.5. Lotura digitalak

Interwovenen, monografiak aurkibideei dagozkien 9506 artxibo daude, PDF formatuan. Horietatik 1451, 2015ean sartu dira.

08.6. Lineako baliabide elektronikoak

Guztira, liburutegiak 11 datu-base eta 75 aldizkari elektronikori eskaini die irispidea bere webetik.

2015ean, Liburutegi Nagusia bi datu-base elektroniko berri hauetara harpidetu zen:

- Qmementix Administratiboa, eremu horretako 8 Mementoz osatutako baliabidea.
- Tirant On Line Premium, liburu juridikoen datu-basea eta liburutegia.

Gainera, Liburutegiak orain artean paperean soilik editatzen ziren aldizkako 6 argitalpenen bertsio elektronikoak txertatu ditu bere katalogoan.

08.7. Erakusketa bibliografikoak

Urte honetan zehar sei erakusketa bibliografiko tematiko egin dira irakurketa-aretoan:

- Bost, bi hileko iraupenekoak gutxienez, honako hauei buruzkoak: *Julio Caro Baroja* (haren jaiotzaren urteurrenean), *Toki Administrazioa*, *Gardentasun Administrazioa*, *Aukera-abaniko bat [hainbat irakurketa]* eta *Alderdi Politikoak*.
- Bat, hiru asteko iraupenekoa: *Miguel de Cervantes eta haren lana*, haren 400. urteurrenarekin bat eginez.

Dagozkien katalogoak jendaurrean jarri dira liburutegiaren webean.

Bestalde, irakurketa-aretoan erakusten dira obra berriak, eta horien zerrenda eskuragarri dago euskarri elektronikoan.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016